

Hauteskunde
Sindikalak
94

LANGILE ORDEZKARIENTZAKO HAUTESKUNDE ARAUTEGIA

*EUSKAL HERRIKO LANGILE ORDEZKARIETARAKO
HAUTESKUNDE SINDIKALEI BURUZ JAKIN BEHAR
DUZUNAZ JABETZEKO INFORMAZIO BULETINA*

**T E X T U
L E G A L A K**



1 9 9 4 . e k o U Z T A I L A

s a k o n t z e n

3

Zbkia

SKT 00008

DOKUMENTAZIO
ZENTROA



PERTSONAL ORDEZKARIENTZAKO hauteskunde prozesua.

GUTXIENEZ HILABETE BAT ETA GEHIENEZ HIRU HILABETE	<p>Gutxienez hilabete bat eta gehienez hiru hilabete iragan behar dira sustapen edo aurreabisu data eta hauteskunde prozesuaren hasieraren (hauteskunde mahaiaren eraketa) artean</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Sustatzaileek enpresari eta autonomi elkarteko organo eskumendunari (Lan Eskuordetzari) jakinaraziko diote hauteskundeak egiteko asmoa. Jakinarazpen horretan sustatzaileek zehatz-mehatz adierazi beharko dituzte hauteskunde prozesua egin nahi den enpresa eta lantokia, bai eta hauteskunde mahaiaren eraketari ekingo zaion data ere, kontutan hartuz jakinarazpena autonomi elkarteko organo eskumendunak erregistratzen duen egunetik gutxienez hilabete bat eta gehienez hiru hilabete iragan behar direla.
	<p>20 egun enpresariari jakinarazten zaion egunetik hauteskunde mahaiaren eratu arte</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Enpresari jakinarazpena bidali beharrean, autonomi elkarteko organo eskumendunari aurkeztutako jakinarazpenaren aldaki bat helaraz dakioko, baina sustapen idazkian hauteskunde prozesuaren hasierarako zehaztutako data baino hogeita egun lehenago gutxienez.
	<p>7 egun enpresari jakinarazi ondoren, beronek Mahaia eratu behar duten langileei aintzatespena helaraz diezaioten.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Enpresari hauteskundeak egiteko asmoa jakinarazitakoan, honek, zazpi eguneko epean, Mahaia eratu behar duten langileei eta langileen ordezkari aintzatespena helaraziko die, eta aldi berean, sindikatu sustatzaileei emango die horren berri.
10 EGUN NATURAL GEHIENEZ	<p>MAHAIAREN ERAKETA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Hauteskunde Mahaia, ondore horretarako eskuetsitako aktaren bidez eratu da formalki sustatzaileek hauteskundeak egiteko asmoa azaltzen zuen jakinarazpenaren zehaztutako data, eta berori izango da hauteskunde prozesua hasten deneko data. Enpresariak, halaber, langileen errolda igorriko die Hauteskunde Mahaiko osakideei; ondore honetarako erabili beharreko errolda bat etorriko da eredu normalizatuarekin. Mahaiko osakideetako ezin ere ezin izango da hautagai izan; horietakoren bat hautagai izanez gero Mahairako ordezkaria bilatu beharko zaio. Hauteskunde Mahaiaik honako eginkizunak izango ditu: <ul style="list-style-type: none"> - Hauteskunde Errolda argitaratu. - Hautatu beharreko eskuorde-kopurua eta hautagaiak aurkezteko epea zehaztu. - Aurkezten direnei abegi egin eta hautagai izendatu. - Bozketarako data zehaztu. - Egutegiko hiru eguneko gehienezko epean zenbaketa akta idatzi. Eginkizun horietako bakoitzerako epea arrazoikotasunezko inzipideez eta inguruabarrek aholkatzen dutenaren arabera finkatuko ditu Mahaiaik; edonola ere, Mahaiaren eraketa eta Hauteskunde egunaren artean ez da hamar egun baino gehiago egongo. Hogeita hamar langile bitarteko lantokietako hauteskundeetan, non langileen eskuorde bakarra hautatzen baita, hogeita lau ordu iragan beharko dute Mahaiaren eraketatik bozketa eta hautagaien izendapenera, beti ere Mahaiaik bozketa ordua alde aurretiko denbora nahikoaz jendaurreratu behar duela kontutan hartuz.
	<p>BOZKETA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Bozketa lantokian eta lan-saioan zehar egingo da. Enpresariak, bozketa eta hauteskunde prozesu osoa normaltasunez garatzeko beharrezko baldintzak eskainiko ditu. Eguneko gertakari guztiak aktan jasoko dira, bai eta gorabeherak eta kexak ere. Akta Mahaiko osakideek, ikuskatzaileek eta enpresariaren ordezkariak, baleude, sinatuko dute. Aktaren jatorrizko alea, boto baliagabeak edota ikuskatzaileek aurkatutakoak eta Mahaiaren eraketa akta hiru eguneko epean aurkeztuko zaizkio autonomi elkarteko organo eskumendunari.

Proceso electoral para DELEGADOS/AS DE PERSONAL.

ENTRE UN MES MÍNIMO Y TRES MESES COMO MÁXIMO	<p>Un mes mínimo y tres meses como máximo deberá haber entre la fecha de promoción o preaviso con el inicio del proceso electoral (constitución de la mesa electoral).</p>	<ul style="list-style-type: none"> Los promotores comunicarán a la empresa y al órgano competente de la comunidad autónoma (Delegación de Trabajo) su propósito de celebrar elecciones. En dicha comunicación los promotores deberán identificar con precisión la empresa y el centro de trabajo de ésta en que se desea celebrar el proceso electoral y la fecha de inicio de éste, que será la de constitución de la mesa electoral y que, en todo caso, no podrá comenzar antes de un mes ni más allá de tres meses contabilizados a partir del registro de la comunicación en el órgano competente de la comunidad autónoma.
	<p>20 días entre la fecha de comunicación al empresario y la fecha de constitución de la mesa electoral.</p>	<ul style="list-style-type: none"> La comunicación a la empresa podrá suplirse por medio del traslado a la misma de una copia de la comunicación presentada al órgano competente de la comunidad autónoma, siempre que ésta se produzca con una anterioridad mínima de veinte días respecto de la fecha de iniciación del proceso electoral fijado en el escrito de promoción.
	<p>7 días desde la comunicación a la empresa, para que ésta dé traslado a los trabajadores que deban constituir la mesa.</p>	<ul style="list-style-type: none"> Comunicado a la empresa el propósito de celebrar elecciones ésta, en el término de siete días, dará traslado de la misma a los trabajadores que deban constituir la Mesa, así como a los representantes de los trabajadores/as, poniéndolo simultáneamente en conocimiento de los sindicatos promotores.
10 DÍAS NATURALES COMO MÁXIMO	<p>CONSTITUCION DE LA MESA</p>	<ul style="list-style-type: none"> La Mesa electoral se constituirá formalmente, mediante acta otorgada al efecto, en la fecha fijada por los promotores en su comunicación del propósito de celebrar elecciones, que será la fecha de iniciación del proceso electoral. El empresario/a, en el mismo término, remitirá a los componentes de la Mesa electoral el censo laboral, que se ajustará, a estos efectos, a modelo normalizado. Ninguno/a de los componentes de la mesa podrá ser candidato/a, y de serlo le sustituirá en ella su suplente. La Mesa electoral cumplirá las siguientes funciones: <ul style="list-style-type: none"> -Publicación del Censo Electoral. -Determinará el número de Delegados/as a elegir y la fecha tope para la presentación de candidatos/as. -Recibirá y proclamará los candidatos/as que se presenten. -Señalará la fecha de votación. -Redactará el acta de escrutinio en un plazo no superior a tres días naturales. Los plazos para cada uno de los actos serán señalados por la Mesa con criterios de razonabilidad y según lo aconsejen las circunstancias, pero, en todo caso, entre su constitución y la fecha de las elecciones no mediarán más de diez días. En el caso de elecciones en centros de trabajo de hasta treinta trabajadores en los que se elige un solo delegado/a de personal, desde la constitución de la Mesa hasta los actos de votación y proclamación de candidatos electos habrán de transcurrir veinticuatro horas, debiendo en todo caso la Mesa hacer pública con la suficiente antelación la hora de celebración de la votación.
	<p>VOTACION</p>	<ul style="list-style-type: none"> El acto de la votación se efectuará en el centro o lugar de trabajo y durante la jornada laboral. El empresario facilitará los medios precisos para el normal desarrollo de la votación y de todo el proceso electoral. Se levantará acta incluidas las incidencias y protestas habidas. El acta será firmada por los componentes de la Mesa, los interventores y el representante del empresario, si lo hubiere. El original del acta, junto con las papeletas de votos nulos o impugnados por los interventores y el acta de constitución de la Mesa, serán presentadas en el plazo de tres días al órgano competente de la comunidad autónoma.

Hauteskunde
Sindicalak
94

LANGILE
ORDEZKARIETARAKO
HAUTESKUNDE
ARAUTEGIA

T E X T U
L E G A L A K

THE
LIBRARY OF THE
MUSEUM OF
COMPARATIVE ZOOLOGY
AND ANATOMY
HARVARD UNIVERSITY
CAMBRIDGE, MASSACHUSETTS

LIBRARY
OF THE
MUSEUM OF
COMPARATIVE ZOOLOGY
AND ANATOMY
HARVARD UNIVERSITY
CAMBRIDGE, MASSACHUSETTS

NOV 19 1964

1. KAPITULUA	
HAUTESKUNDE-MUGAPEA	7
1.- HAUTESKUNDE-MUGAPE MOTAK.....	7
2.- HAUTESKUNDE-MUGAPEA OSATZEN DUTEN LANGILE KOPURUAREN KALKULUA ORGANO MOTAK ETA AUKERATU BEHARREKO ORDEZKARI KOPURUA ZEHAZTEKO.....	8
3.- LANGILE KOPURUAREN ARABERA HAUTESKUNDE-MUGAPE BAKOITZARI DAGOZKION ORDEZKARI KOPURUAK ETA MOTAK.....	9
2. KAPITULUA	
HAUTESLEAK ETA HAUTAGAIAK	11
1.- HAUTESLE IZATEKO BALDINTZAK.....	11
2.- HAUTAGAI IZATEKO BALDINTZAK.....	12
3. KAPITULUA	
KANDIDATURAK	13
1.- KANDIDATUREK BETE BEHARREKO BALDINTZAK LANGILE ORDEZKARIEN HAUTESKUNDEETAN.....	13
4. KAPITULUA	
HAUTESKUNDEEN PROMOZIOA	15
1.- HAUTESKUNDEAK GARATZEKO LEGITIMATUTAKO SUBJEKTUAK.....	15
2.- PROMOZIOA ZUZENTZEN ZAION SUBJEKTUA.....	16
3.- ERAGILEEN ELKARTETZA.....	16

4.- PROMOZIOAREN ARRAZOIAK	17
5.-PROMOZIOAREN UNEA	18
6.- PROMOZIOAN KONTUTAN IZAN BEHARREKO DATAK	18
7.- PROMOZIOAREN EDUKINA ETA FORMA	19

5. KAPITULUA

LANGILE ORDEZKARIEN HAUTESKUNDE PROZESUA..... 21

1.- HAUTESKUNDE MAHAIAREN OSAKETA.....	21
2.- BOTAZIO DATAREN EZARKETA.....	22
3.- ENPRESARIAK LAN-ZENTSUA HAUTESKUNDE MAHAIARI BIDALTZEA.....	22
4.- HAUTESKUNDE ZENTSUA EGITEA MAHAIAREN ALDETIK.....	22
5.- HAUTESKUNDE ZENTSUAREN ARGITARATZEA	23
6.- HAUTESKUNDE ZENTSUAREN KONTRAKO ERREKLAMAZIOA.....	23
7.- HAUTESLE ZERREDA BEHIN-BETIKOAREN ARGITARATZEA ETA HAUTATU BEHARREKO ORDEZKARIEN KOPURUA ZEHAZTEA.....	23
8.- HAUTAGAIEN AURKEZPENA.....	23
9.- HAUTAGAIEN ALDARRIKAPENA	23
10.- HAUTAGAI ALDARRIKAPENEN KONTRAKO ERREKLAMAZIOAK.....	24
11.- HAUTESKUNDE PROPAGANDA	24
12.- BOTAZIOA	24
13.- BOTU KONTAKETA	25
14.- EMAITZEN ESLEIPENA	25
15.- KONTAKETA AKTA ETA EMAITZEN ESLEIPENA EGITEKO MODUA	26
16.- AKTAK ADMINISTRAZIOARI IGORTZEA.....	26

6. KAPITULUA

HAUTESKUNDE-PROZESU BEREZIAK DITUZTEN SEKTOREAK..... 29

1.- MARINA MERKANTEA.....	29
2.- ARRANTZUNTZIEN FLOTA.....	29

7. KAPITULUA
POSTA BIDEZKO BOTUA..... 31

8. KAPITULUA
HAUTESKUNDE-PROZESUAN
EGINDAKO ERREKLAMAZIOAK..... 33

HAUTESKUNDE-MUGAPEA

HAUTESKUNDE-MUGAPEAK (edo HAUTESKUNDE-UNITATEAK) langileak elkartzea suposatzen du, hauek hauteskunde-prozesu baten bidez zenbait ordezkari aukeratzeko asmoz. Hauteskundeak bultzatu nahi dituen edonoren lehenengo eginbeharra eremuak zehaztea da.

1.- HAUTESKUNDE-MUGAPE MOTAK

1.- **ENPRESA.** (lantegi bat bakarrik denean (LEko 62.1. art.)).

2.- **LANTOKIA.** (Enpresak lantegi bat baino gehiago dituenean (LEko 62.1. eta 63.1. art.ak)).

3.- LANTOKI-ELKARKETA.

1.3.1.- Enpresak probintzia berean edo probintziarekin muga egiten duten herrietan bi edo lantegi gehiago dituenean, eta langileen kopurua 50 langiletara iristen ez denean, baina elkartuta kopuru horretara iristen direnean Enpresa-batzorde bateratua osatuko da (LEko 63.2 art.).

Adibidea:

1. Zentroa = 40 langile.
2. Zentroa = 44 langile.
3. Zentroa = 35 langile.

Hauteskunde-mugapea hiru zentroek osatuko lukete, 119 langilerekin.

1.3.2.- Probintzia bereko lantoki batzuek 50 langile dituztenean eta beste batzuek ez, lehenengoetan enpresa-batzorde propioak osatuko dira eta beste guztien artean beste bat (LEko 63.2 art.).

Adibidea:

1. Zentroa = 100 langile.
2. Zentroa = 500 langile.
3. Zentroa = 25 langile.
4. Zentroa = 40 langile.

3. Zentroa eta 4. a elkartu egingo dira eta 65 langilez osatutako hauteskunde-mugape bat osatuko da.

4.- **BUKEA.** (lantoki mota bat da. LEko 1.5. art. eta 1311/86 E.D.ko 17. artikulua)).

5.- **FLOTA.** (Enpresa bereko itsasuntzien elkarketa da, itsasuntzi bakoitzeko langile-kopurua 50era iristen ez denean (1311/86 E.D.ko 17. artikulua)).

***ZEHAZTAPENAK:**

Lantoki hitzaren kontzeptu generikoa LEko 1.5. artikuluan dator: «lan agintariaren aurrean alta eman eta antolamendu espezifikoa duen ekoizpen-unitatea»; 1311/86 E.D.ko 4. artikuluan dator.

Komenigarria da hau eta lana egiten den lekua ez nahastea, batzuetan bat egingo dute lantoki kontzeptuarekin, baina beste batzuetan ez.

- Enpresa batean eta aldi berean hauteskunde-mugape ezberdinak eman daitezke.

Adibidez: 10 iltasuntzi dituen enpresa bat (horietako batean 49 langile baino gehiago ari dira lanean) eta lehorrean lantoki bat. Kasu honetan 3 hauteskunde-mugape genituzke.

- 49 langile baino gehiago dituen iltasuntziak osatuko luke bat.
- Gainontzeko iltasuntziak beste bat osatuko luke.
- Lehorreko dependentziak (lantoki bat osatuko dute) osatuko luke hirugarrena.

2.- HAUTESKUNDE-MUGAPEA OSATZEN DUTEN LANGILE-KOPURUAREN KALKULUA ORGANO-MOTAK ETA AUKERATU BEHARREKO ORDEZKARI-KOPURUA ZEHAZTEKO.

HAUTESKUNDE-MUGAPEKO LANGILE-KOPURUA =

LANGILE FINKOEN KOPURUA

LANGILE FINKO ALDIZKAKOEN KOPURUA

INOIZKAKO LANGILEEN KOPURUA (URTEBETE BAINO GEHIAGOKO KONTRATUA)

INOIZKAKO LANGILEEN KOPURUA (GEHIENEZ ERE URTEBETEKO KONTRATUA)

* Inoizkako langile-kopurua (urtebeteko kontratua) = lana egindako egun kopurua/200.

(Kozienete hau inoizkako langileen kopurua baino handiagoa denean hauen, langile-kopurua, kopurua kontatzen da).

1. ADIBIDEA: 20 langile finko eta urtebetez azpiko kontratua duten inoizkako 40 langile, denera 800 egunetan egin dute lana. Hauteskunde-mugapea osatzen duten langile-kopurua ondorengoa da:

$$\begin{aligned} &20 \text{ langile finko} \\ &+ 800/200 = 4 \end{aligned}$$

GUZTIRA 24

Ondorioz langile-ordezkarri bat aukeratzea dagokie.

*** ZEHAZTAPENAK**

1.- Araketa legala LEko 62., 63. eta 64. artikuluetan eta 1311/86 E.D.ko 8.4. artikuluan formulatzen da.

2.- Estatutuko 72.2. artikuluan lana egindako egunak/200 ordezkari-kopuruari bakarrik badagokio ere, era berean aplikatu behar da hauteskunde-mugapea zehazteko eta zeintzuk diren aukeratu beharreko organo-motak (ordezkarriak edo komiteak) jakiteko.

3.- Urtebetez azpiko kontratua duten inoizkako langileek lana egindako egun-kopurua hauteskunde-deialdia baino urtebete lehenegoko denboraldiari konputatu behar zaio (1311/86 E.D.ko 8.4. artikulua). Deialdi-data promozioa egin den datatzat hartu behar da.

4.- Lana egindako eguntzat lana egindako egunak eta lan-eternaldiak (igandeak, jai-egunak, oporrak) hartu behar dira.

3.- LANGILE-KOPURUAREN ARABERA HAUTESKUNDE-MUGAPE BAKOITZARI DAGOZKION ORDEZKARI-KOPURUAK ETA MOTAK

LANGILE-KOPURUA	ORDEZKARI-KOPURUA	ORGANO-MOTA
6-30	1	LANGILE ORDEZKARIA
31-49	3	LANGILE-ORDEZKARIA

***ZEHAZTAPENAK**

1.- Arauketa legala LEko 62., 63., 66. eta 72. artikuluetan eta 1311/86 E.D.ko 8.4. artikuluan ematen da.

2.- Langile-kopurua 6-10 bitartekoa den lantegietan beharrezkoa da gehiengoaren akordioa langile-ordezkaria aukeratzeko.

HAUTESLEAK ETA HAUTAGAIK

1.- HAUTESLE IZATEKO BALDINTZAK

1.1.- INOREN KONTURAKO LANGILEA IZATEA (LEko 69. art.).

Ondorioz eta LEko 1.3. artikulua aplikatuz hemendik kanpo geratzen dira:

a) Funtzionari publikoak eta Estatuko, korporazio lokaletako eta entitate publiko autonomoetako langileak, Lege baten babesean aipatu erlazio hori arau administratiboz edo estatutarioz arautzen denean.

b) Obligaziozko prestazio pertsonalak burutzen dituztenak.

c) Bereziki izaera juridikoa duten enpresetako aholkulari edo kontseilariak.

d) Lana adiskidetasunagatik, auzokidetasunagatik edo borondatez egiten dutenak.

e) Enplegatzen dituen pertsonaren ahaideak, soldatapean daudela frogatzen ez den bitartean.

f) Enpresari batentzako edo gehiagorentzako merkatal eragiketak egiten dituztenak eta berorien arriskuen erantzule direnak.

Beste zenbait arau aplikatuz:

g) Goi-zuzendaritzako pertsonala (abuztuaren 1eko 1382/1985 E.D.ko 16. artikulua).

h) LEko 10.2 artikulua araberako lan-kontratua dutenak (talde-kontratua).

i) Etxetiko langilea talde familiarra denean (LEko 13.5 art.).

§

a) Langile finkoak, besteak beste administrazio publikoetako pertsonala.

b) Langile «ez-finkoak», hau da, finko aldizkakoak eta epe finkorako kontratua dutenak (iharduera berria sustatzeko, ekoizpen-kontuak direlako, lan edo zerbitzu jakin bat egiteko, praktikan daudenak, trebakuntzarako, errelebuetaoak, behin-behineko enplegua sustatzeko neurri gisa (LEko 11., 12., 15. artikulua eta 2104/1984, 1991/1984, 1992/1984 eta 1989/1984 Erret Dekretuak).

c) Denbora partzialeko langile finkoak.

d) Etxetiko langilea talde familiarra ez denean (LEko 2.1.b artikulua).

e) Etxe familiarren zerbitzuko langileak (LEko 2.1.b art).

f) Presondegi-erakundeekin lan-harremanak dituzten penatuak (LEko 2.1.c art) eta desgaituntzarik edo sufragio aktibotik gabetuta ez daudenak.

g) Kirolari profesionalak (LEko 2.1.d art).

h) Ikuskizun publikoetako artistak (LEko 2.1.e art).

i) Enpresari batentzako edo gehiagorentzako merkatal eragiketak burutu eta berorien erantzule ez direnak (LEko 2.1.f art).

j) Lan-harremana lege batek adierazten duenean lan-harremana izaera bereziko berariaz

izaera berezikotzat dela hartzen dutenak (LEko 2.1.g art).

1.2.- 16 URTE BAINO GEHIAGO IZATEA

Urteak hauteskunde-eguna baino lehenago edo egun berean bete behar dira. (Nahiz eta LEak eta RDNCEak ezer esan ez, data hori hartu behar da egokientzat langileak enpresan parte hartzeko eskubidea izan dezan). (LEko 61. art).

1.3.- LANGILEAK ENPRESAN, GUTXIENEZ, HILABETEKO AINTZINATASUNA BEHAR DU

Aurreko baldintzen arrazoi berberengatik, aintzinasuna bozketa-egunari dagokio.

1.4.- LANGILEAK HAUTESKUNDE-MUGAPE ETA KOLEGIOKOAK IZATEA (LEko 69. art).

Honek esan nahi du A lantokiko langile bat ez dela B lantokiko hautesle eta hautagai. Edo, lantoki batean 1 kolegioko langile bat ezin dela 2 kolegioko hautesle nahiz hautagai izan.

2.- HAUTAGAI IZATEKO BALDINTZAK

2.1.- HAUTESLE IZATEKO BEHAR DIREN BALDINTZAK BETETZEA.

2.2.- SUFRAGIO PASIBOKO ESKUBIDEAZ GABETZEN DUTEN ZIGORRIK EZ IZATEA.

2.3.- 18 URTE BETETA IZATEA (LEko 69. art).

Hautagaiak hauteskunde-egunean duen adina hartu behar da aintzat.

2.4.- ENPRESAN 6 HILABETEKO AINTZINATASUNA IZATEA. HITZARMEN KOLEKTIBOKO ITUN BATEN BIDEZ 3 HILABETETARA JAITS DAITEKE (LEko 69.2 art).

Adina hauteskunde-datari dagokio.

Baldintza honek dituen ondorioak ondoren azaltzen den bezala laburbil daitezke:

2.4.1.- Langile finkorik ez duten enpresetan, hau da enpresan bakarrik inoizkako langileak 6 hilabeteko kontratuarekin (3 hilabetarako hitzarmen kolektiboan adostasunik baldin badago) dabilzanetan ezin izango da hauteskunderik egin, ez baitago aipatutako aintzinasuna duen inor.

2.4.2.- Langile finakoak edo hauteskundeei dagokienean haiei parekatuak dauden langileak eta 1 puntuan adierazten diren inoizkako langileak dituzten enpresetan langile finkoek edo parekatuek bakarrik izan ahal dute hautagai.

2.4.3.- Enpresa edo lantoki berrietan ezin izango dira hauteskundeak egin lehenengo 6 hilabeteetan (3 hilabete hitzarmen kolektiboan adostasunik balego). (Hauteskendu-araudiari buruzko E.D.ko I.e artikuluan berretsia).

Atzerriko langileak hautesle nahiz hautagai izan daitezke, apartatu honetako baldintzak betetzen dituztenean.

KANDIDATURAK

1.- KANDIDATUREK BETE BEHARREKO BALDINTZAK LANGILE-ORDEZKARIEN HAUTESKUNDEETAN.

Lehenik eta behin esan behar da langile-ordezkariek aukeratzeko ez direla kandidaturak aurkezten, HAUTAGAIK baizik.

1.1.- Hautagaiak aukeragarriak izango dira.

1.2.- Hautagaiak hautagai izatea onartu behar dute, horretarako berariaz prestatutako aitortpena sinatuz (131/186 E.D.ko 7.1 artikulua).

1.3.- Hautagaiak HAUTESKUNDE-MAHAIAN aurkeztuko dituzte legez eraturako Sindikatuek edo hautatu beharreko kideen kopurua baino hiru aldiz handiagoa izan behar duen sinadurakopuru batek abalatura. (LEko 69.3 art).

1.4.- Hautagai bakoitzak sindikatuaren edo ordezkatzan duen langile-taldearen sigla izango du.

1.5.- Hautagaien aurkezpena honi erantsirik doan ereduaren egin behar da.

* ZEHAZTAPENAK

Sindikatuak edo langile-taldeak ez dute mugarik nahi adina hautagaiak aurkezteko; beraz, nahi adina hautagai aurkez ditzakete, enpresa-batzordeetarako hautagaiekin gertatzen den bezala, egiaztan hautagaien batuketak kandidatura bat osatuko lukeelako.

Bozketan-unean langile-ordezkariek izateko hautagaien zerrenda bakarra egingo da, aurkezten dituzten Sindikatu edo langile-taldekoak (131/186 E.D.ko 8. artikulua). Egia esan zerrenda irekia da.

Hautasle bakoitzak bete beharreko postuak adina hautagairi botua eman ahal dio gehienik (1, 2, edo 3) (LEko 70. artikulua). Langile-ordezkariek kasuan komeni da hautagaiak bete beharreko postuen kopurua baino gehiago ez izatea, beste hautapen sindikaletoak hautagairik ez dagoen kasuan izan ezik, botuen sakabanaketa ekarri baitezake horrek.

* LANGILE-ORDEZKARIEN HAUTESKUNDEETARAKO KANDIDATURA EPIGRAFEAREN ERANSKINA.

Langile-ordezkarietarako hautagai-kopurua bete beharreko postuak baino txikiagoa denean, hauteskundeak egin egingo dira dagozkien postuak betetzeko, besteak hutsik utziz. (131/186 E.D.ko 7.2. artikulua).

— 14

HAUTESKUNDEEN PROMOZIOA

1.- HAUTESKUNDEAK GARATZEKO LEGITIMATUTAKO SUBJEKTUAK

Edozein hauteskunde-mugape dela ere, kontua da jakitea zein subjektu dauden legitimatuta hauteskundeak garatzeko. Arazoa, aipatu gabe 8/80 Legearen Estatutuan, Estatutuak bere 32/84 Legean dioena eta eta LOLS-k dioena zehazten dutena moldatuz erabaki behar da.

Erreferentzia gisa enpresa batean eman daitekeen hauteskunde-mugaperik txikiena hartuko dugu, lantokia alegia; izan ere, enpresa batean lantoki bat baino gehiago baldin badaude, batzuentzako esandakoak besteentzako balio baitu.

Lantoki batean hauteskundeak garatzeko legitimitatea dute:

1.1.- Estatu mailan ordezkariak sindikalik handienak dituzten sindikatuak (hau da, estatu mailan, gutxienez, %10eko ordezkariak lortu dutenak) (LEko 32/84 Legearen 67.1 artikulua eta LOLSko 6.1.e).

1.2.- Hauteskunde-eremua kokatzen den Komunitate Autonomoko erakunde sindikalik ordezkariak (gutxienez, eremu horretan %15a edo 1.500 ordezkari lortu dituztenak eta estatu mailako beste erakunde batekin federatu edo konfederatu gabe daudenak edo aurreko baldintzak bete ez eta estatu mailako ordezkariak handiena duteneko afiliatuak, federatuak edo konfederatuak) (LEko 32/84 Legea eta LOLSko 7.2. art.).

1.3.- Hauteskunde-mugapea kokatuta dagoen lurraldean ordezkariak kualifikatuak duten erakunde sindikalak (aipatu mugape horretan, gutxienez, %10eko ordezkariak lortu dutenak). (LOLSko 7.2. artikulua).

Lehenengo hiru kasu hauetan legitimitatea lortzeko ez da beharrezkoa orain hauteskundeak garatzen diren mugapean aurreko hauteskundeetako ordezkariak izatea, ezta afiliatu bat bera ez izatea ere..

1.4.- Aurreko hauteskunde sindikaletan, enpresan %10eko ordezkariak lortu duten erakunde sindikalek (LEko 32/84 Legeko 67.1 art.). Kasu honetan gerta daiteke erakunde sindikal batek lantokiren batean ordezkariak ez izatea eta, halere, hauteskundeak garatzea enpresako lantoki ezberdinetan %10eko baino ordezkariak handiagoa duelako.

1.5.- Lantokiko langileek gehiengoaren adostasunarekin (LEko 32/84 Legeko 67.1. art.).

Hauteskundeak gara ditzaketan subjektu legitimatuak nortzuk diren zehaztu ondoren, oraindik zehazteko dago sindikatuen kasuan -hauek pertsona juridikoak dira-, NORTZUK DIREN HAUTESKUNDEAK GARATZEKO BAIMENA DUTEN PERTSONA EDO PERTSONA FISIKOAK.

Horretarako kontutan izan beharko da Sindikatuko estatutuak dioena edo Batasun Nazionalen hartutako erabakia. Horrela, enpresa bateko hauteskunde-garapena dagozkien lurraldeko organuek abalatu behar dute, baita kandidaturen aurkezpena ere.

2.- PROMOZIOA ZUZENTZEN ZAION SUBJEKTUA

Hauteskundeak egiteko eragileen borondateak bi subjektu ditu helburu, bata publikoa eta bestea pribatua, ondorengoak:

- Komunitate Autonomoetako organo kompetenteak
- Enpresarioa.

LEko 67.1. artikulua dio eragileek enpresari eta Erregistroko Bulego Publikoari jakinaraziko dietela hauteskundeak egiteko duten asmoa. Komunikazio horretan eragileek zehatz-mehatz azaldu behar dute enpresa eta beronen lantokia eta hauteskunde-prozesuaren hasiera-data. Prozesu horretako lehenengo egitekoa hauteskunde-mahaia osatzea izango da.

Bakar bakarrik ordezkariarik handiena duten sindikatuen arteko gehiengoaren adostasunarekin eta 11/1985 Lege Organikoarekin, Askatasun Sindikalaz ari dena, garatu ahal izango dira hauteskundeak lur-mugape ezberdinetan. Akordio horien berri eman beharko zaio Erregistroko Bulego Publikoari gordailatzeko eta iragartzeko (LEko 67.1. art).

Dena den, kontuan izan beharrekoa da ADMINISTRAZIO AUTONOMOARI ETA ENPRESARIARI JAKINARAZI EGIN BEHAR ZAIELA.

EUSKAL HERRIKO KOMUNITATE AUTONOMOAN

Langile-ordezkaririk aukeratzeko hauteskundeetan, maiatzaren 19ko 11/1994 Legeko 1. parrafoko Bigarren Xedapen Iragankorrean jasotzen den bezala, hauteskunde-prozesua martxan jartzeko data lantokian ordezkariarik handiena duen edo duten sindikatuak edo sindikatuek ezarriko dute. Data jartzeko duten lehentasun hori galdu egingo dute sindikatuek 1995eko urriaren 31 baino lehenago hauteskundeak egiteko aurreabisurik egiten ez badute.

3.- ERAGILEEN ELKARTZEA

Gerta daiteke subjektu eragile bat baino gehiago izatea, aldi berean nahiz hurrenez hurren eta lehenengo kasuan elkarrekin ihardutea edo bakoitzak bere aldetik ihardutea. Promozio bateratua egiten denean edo bakoitzak bere aldetik egiten duenean eta hauteskunde-prozesuaren hasiera-data kointzidetzen dutenean ez dago inongo arazorik, ondorio juridikoa berbera baita: hauteskunde-prozesua egun berean hastea.

Arazoa beste edozein kasutan sortzen da; hau da, subjektu legitimatuek hauteskunde-prozesuaren hasiera-data ezberdinak ezartzen dituztenean. Beraz, beharrezkoa da horri buruzko arau bat ezartzea.

Aipatutako arau hori 1311/86 E.D.ko artikulua ematen digu: «*Enpresa edo lantoki berean hauteskundeak egiteko eragile ezberdinak aurkezten baldin badira, hauteskunde-prozesuari hasiera emateko data horretarako eskumena duen Erakundearen lehen jasotako komunikazioak esaten duena izango da*».

LEko 67.2. artikulua salbuespen bat ezartzen du, hauxe: «*Enpresa-batzorde bat dagoen enpresa edo lantoki bateko ordezkariak sindikalik handiena duenak eta enpresa-batzordeak data ezberdinak aurkezten baldin badituzte, beti enpresa-batzordeak aurkeztutakoa hartuko da*

aintzat; jakina, bi deialdiek indarrean dauden baldintzak betetzen dituztenean. Azken kasu honetan promozioari beste batek edo batzuek aurrez egindako hauteskunde-promozio horren komunikazioa erantsi beharko zaio.

Euskal Autonomi Elkarteke Sindikatuarteko Akordioaren 4. puntuko 4., 5. eta 6. parrafoek diote:

"4.- Nolanahi ere, enpresa edo lantoki bateko enpresa-batzordean ordezkariak handiena duen edo duten sindikatuak edo sindikatuak edo erasandako langileek, gehiengoaren adostasunarekin, enpresan ezarrita zegoen data aldatu ahal izango dute. Hauteskunde-prozesuaren hasiera-data berria agintaritzea laboraririk jakinarazi beharko diote egutegian edo errebokatzeko den aurrebikisua markatzen duen data baino hamabost egun lehenago.

5.- Aurreko puntuan ezarritakoaren arabera konpon ez daitezkeen aurrebikisua pilotuko balira, hauteskunde-prozesuaren hasiera-datatik hurbileneko data nagusituko da; jakina, aurrebikisua behar den garaian egin baldin bada.

6.- Hauteskunde-prozesua inoiz ez da hasiko aplikatu daitezkeen aurrebikisua ezarritako data baino lehenago. Botua ematea eta kontakteta, legeak ezartzen duen epe barruan egin behar da enpresa edo lantokian hauteskunde-mahaia osatu den unetik kontakuta; beraz, ezin da iraungipena planteiatu, aipatutako osaketa horretatik aurrera ez bada behintzat."

4.- PROMOZIOAREN ARRAZOIAK

4.1.- PROMOZIO TOTALA

4.1.1.- Hauteskunde bidez lortutako 4 urtetako agintaldia iraungi baino lehenago (1311/86 E.D.ko 1.1.a art.)

4.1.2.- LEko 67.3. artikuluaaren prozeduraren arabera ordezkari guztiek errebokatzeko (1311/86 E.D.ko 1.1.b art.).

4.1.3.- Jurisdikzio kompetenteak hauteskunde-prozesuaren deuseztasuna eskatzen duenean (1311/86 E.D.ko 1.1.c art.).

4.2.- PROMOZIO PARTZIALA

4.2.1.- Bakantea dagoenean, ordezkapena egin gabe:

- Dimititzeagatik.
- Heriotzagatik.
- Errebokazioagatik.
- Bestelako arrazoiengatik (Lan-kontratua iraungi delako ...) 1.1.d artikulua.

4.2.2.- Enpresa edo lantoki bat sortzeagatik, 1311/86 Erret Dekretua (LEko 69.1 art. eta 1311/86 Erret Dekretuko 1.1.e). Kasu honetan promozioa iharduera hasten denetik 6 hilabete igaro ondoren egin ahal izango da, edo 3 hilabete igaro ondoren hitzarmen kolektiboan hautagai izateko epe hori jasoko balitz.

4.2.3.- Plantila handitzeagatik (1311/86 E.D.ko 15. art.).

«Arrazoiak edozein delarik ere lantegi batean plantila handiagotzen bada eta honek langileen Estatutuko 62.1. eta 66.1 artikuluetan aurrakusten diren eskalen arabera langileen ordezkari-kopurua birmoldatzea suposatuko balu, promozio partziala bultzatu ahal izango da egoera berriak sortutako postu bakanteak betetzeko».

4.2.4.- Plantila nabarmen murrizteagatik (LEko 67.1 art.).

Enpresa batean eman daitezkeen plantila-murrizketa nabarmenak langileen ordezkariak berregokitzeko eman behar diren urratsak jaso daitezke hitzarmen kolektiboan. Bestela,

berregokitze hori enpresa eta langileen ordezkarien arteko adostasunarekin egin beharko da.

Aukeratura ateratzen diren ordezkarien agintaldia enpresan dauden besteenekin batera amaitzen da.

Adibidez, 80 langileko enpresa batean 5 ordezkari daude eta gerora 80 langile izatetik 120 izatera pasatzen bada 9 ordezkari dagozkie langileei, eta egin behar dena da beste 4 ordezkari berri aukeratu.

5.- PROMOZIOAREN UNEA

5.1.- PROMOZIOA HAUTESKUNDE-AGINTALDIA IRAUNGITZEAGATIK

RDNCE-k bere 1.1.a artikuluan ezartzen du promozioa egin ahal izango dela «4 urteko hauteskunde-agintaldia iraungi baino lehenago ...»

Bestalde, 67.1 artikulua ezartzen du «eragileek enpresari eta Erregistroko Bulego Publikoari jakinaraziko die hauteskundeak egiteko asmoa dutela, gutxienez, hauteskunde-prozesua hasi baino hilabete bat lehenago ... Jakinarazpen horretan eragileek zehatz-mehatz identifikatu beharko dute hauteskundeak zein enpresatan edota zein enpresaren lantokitan egin behar dituzten eta baita hauteskunde-prozesuaren hasiera-data ere; aipatutako prozesua hauteskunde-mahaia eratzearekin batera hasten da eta edozein kasutan ere ezin hasiko dira Bulego Publikoan jakinarazpena erregistratu eta hilabete bat igaro baino lehenago, ezta hiru hilabete igaro ondoren ere.

Langile-ordezkariak ordezkatzeko hauteskundeak, maiatzaren 19ko 11/1994 Legea indarrean sartu baino lehenagoko ordezkariak ordezkatzeko 15 hilabetetan zehar egin daitezke 94-9-15etik aurrera, bien bitartean agintaldia, bere ondorio guztiekin, luzatu egingo da.

67.2. artikulua ezartzen du enpresari jakinarazten ez baldin bazaio, huts hori bertara, enpresara, Erregistroko Bulego Publikoan aurkeztutako jakinarazpen edo aurreabisuaren kopia eramanda konpon daitekeela, beti ere hauteskunde-prozesuaren hasiera-data baino 20 egun lehenago eramaten bada.

5.2.- BESTE ARRAZOI BATZUENGATIKO PROMOZIOA

Aurrez Komunitate Autonomoko Erakunde kompetenteari jakinarazi behar zaizkio errelokazioak, dimisioak eta agintaldiaren iraungipenak, gertatzen direnetik 10 laneguneko epean (1311/86 E.D.ko 14. art.).

Jakinarazpen hori egin ondoren, promozioa edozein unetan egin daiteke, baina beti ere Administrazioari eta enpresariari ematen zaien aurreabisua eta hauteskunde-prozesuaren hasiera emateko dataren arteko hilabeteko, gutxienez, epe hori errespetatuz.

6.- PROMOZIOAN KONTUTAN IZAN BEHARREKO DATAK

Promozio-ekintzak badu konplexutasunik datei dagokienean; beraz, ondoren zehazten dira aipatutako promozioan parte hartuko duten datak, denek ere elkarrekin erlazionatuak.

6.1.- ORDEZKARIEN AGINTALDIAREN IRAUNGIPEN-DATA.

Guztiz beharrezkoa da data hori ezagutzea promozioa egiteko. Promozioa data hori baino lehenago egin daiteke, baina ez geroago.

Oraingo hauteskunde-prozesu honetan, gogoan izan promozioa Agintaldiaren iraungipen-

data baino beranduago egin daitekeela; izan ere, hauteskunde-epea 15 hilabetetara luzatzean, 4 urte igaro direlako agintaldiak amaitzean, luzatuko egingo dira hauteskundeak egin arte.

6. 2.- KONTAKETALDIAREN HASIERA-DATA

6. 3.- KONTAKETALDIAREN AMAIERA-DATA

Bi data horiek zehaztuko dute ordezkari-kopurua, sindikatuen ordezkariatasuna zenbaterainokoa den zehazteko. Denboraldi horretatik kanpo egiten diren bozketak ez dira zenbatuko.

6.4.- HAUTESKUNDE-PROZESUAREN HASIERA-DATA

Prozesua hauteskunde-mahaiak osatzen denean hasten da. data hau eragileek zehazten dute Administrazioari bidaltzen dioten aurreabisuan. Prozesua aurreabisuan zehaztutako datan hasten ez baldin bada, arrazoi justifikatua dela medioa hurrengo 24 orduetan, aurreabisuak bere balioa galdu egiten du.

6.5.- BOZKETA-EGUNA

Data hau hauteskunde-mahaiak zehazten du. Halere, komeni da gogoan izatea egutegiaz esaten duguna.

Dena den, data hori neurri batean eragileek markatutako hasiera-datek baldintzatzen dute, hain zuzen ere ondorengoak:

Langile-ordezkarietzat.

Hasiera-datatik (hauteskunde-mahaiaren osaketa) bozketa-datara bitartean ezin dira 10 egun natural baino gehiago igaro (LEko 74.2 art.).

Langile-ordezkari bat bakararra aukeratzen denetan, hogeita hamar langile baino gutxiagoko enpresetan, mahaiak osatzen denetik bozketa unerarte eta hautatuak izendatu arte hogeita lau ordu igaro behar dira, baina, dena den Mahaiak aurretiaz jakinarazi beharko du bozketa-ordua, jendeak nahikoa denbora izan dezan.

7.- PROMOZIOAREN EDUKIA ETA FORMA

7.1.- ADMINISTRAZIOARI JAKINARAZTEA

Idazki honen edukiaz nahikoa da adieraztea 1311/86 E.D.ko Ereduan (HAUTESKUNDEAK EGITEKO AURREABISUA) azaltzen diren datu guztiak idatziz jarri behar direla, aurrez azaldutako arrazoiengatik daturik nagusia hauteskunde-prozesuaren hasiera izanik.

Eredu ofizialak Administrazio Zentralak edo Autonomoak emango ditu (1311/86 Erret Dekretuko bigarren Xedapen gehigarria). Aipatutako EREDUAN aurrirakusten diren zailtasunak, eta aurretiaz konpondu beharrekoak, enpresariari eskatuta edo ahal den moduan lortu behar dira, ondorengoak dira hain zuzen ere: Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea (I.F.K.).

Gizarte-Segurantzako Inskripzio-Zenbakia.

Langile-kopurua.

Hauteskundeak egin behar direla esaten duen aurreabisuaren kopia bat eskatu behar da, Organo administratiboaren Sarrera-erregistroko ziguilarekin eta datarekin.

7.2.- ENPRESARIARI JAKINARAZTEA

Enpresariari idatzi bat bidaliko zaio, eta berari erantsita Administrazioan aurkeztutako aurreabisuaren fotokopia bat, beti ere kontutan izanik hauteskunde-prozesuaren hasiera baino

hilabete bat, gutxienez, lehenago aurkeztu behar zaiola.

Enpresariak edo berariaz pertsona baimendu batek idatzi hori sinatu egin behar du, jaso izanaren agiri gisa.

Gainera, orain arte azaldutako guztia prozesatzen denean, EGUTEGI ADIERAZGARRIA bidaliko zaio Hauteskunde-mahaiari.

** PROMOZIOAREN EDUKIN ETA FORMA EPIGRAFEAREN ERANSKINA*

Hauteskunde-deia lantoki bateko langile gehienen adostasunarekin egiten denean, ondoren zehazten diren datuak jaso behar dituen akta baten bidez egiaztatuko dira:

Lantokiko plantila

Batzarera deitutako langile-kopurua

Bertaratuen kopurua eta bozketaren emaitza

Agiri hau hauteskundeak egiteko aurreabisuari erantsiko zaio (1311/86 E.D.ko 1.2. art.).

LANGILE ORDEZKARIEN HAUTESKUNDE PROZESUA

1.- HAUTESKUNDE-MAHAIAREN OSAKETA

1.1.- AURRETIKOAK

1.1.- Enpresariak promozio-idazkia igorriko die hauteskunde-mahaiko osakideei zazpi eguneko epearen barruan (LEko 74.1. art.).

1.2.- Eta baita langileen ordezkarietarako ere.

1.3.- Enpresariak pertsonalki emango die aurreko jakinerazpen horren berri promotoreei (LEko 74.1. art.).

Mahaia eratzen denetik, hauteskunde-egintza desberdinetarako epeak ezarriko ditu mahai horrek, arazoizkotasun-irizpideak erabiliz eta inguruabarrek gomendatzen dutenari jarraituz (LEko 74.2. art.).

1.2.- HAUTESKUNDE-MAHAIAREN OSAGIAK

3.1.1.- TITULARRAK (LEko 73.3. art.):

- Lehendakaria (enpresan antzinasunetik handiena duen langilea)

- Bokala (adinek handieneko hauteslea).

- Bokal-Idazkaria (adinek gutxieneko hauteslea).

3.1.2.- ORDEZKOAK (LEko 73.3. art.):

- Lehendakari ordezkaria (antzinasunetik handieneko lehendakariaren jarraian doan langilea)

- Bokal ordezkaria (adinean Bokalaren jarraian doan hauteslea).

- Bokal-Idazkari ordezkaria (adinean Bokal-Idazkariaren jarraian doan hauteslea).

Hauteskunde-mahaiko Lehendakari, Bokal eta Idazkariaren karguak errenuntziaezinak dira. Kargua betetzeari uzteko gertatzezko ezinezkotasun-arrazoiak izan beharko dira (gaixotasun, istripu, ezinbesteko arrazoi), eta aurretik garaiz jakinarazi beharko dira ordezkapena egiteko denbora emanez (RDNCEko 5.3. art.).

Mahaiko ezein osakidek ezin du hautagai izan. Hala balitz, ordezkaria jarriko da haren tokian (LEko 73.4. art.).

3.1.3.- INTERBENTOREAK

Kandidatura bakoitzak izendatu dezake interbentore bana (LEko 73.5. art.). Interbentoreak ahotsa bai baina boturik ez du izango, eta bere egitekoa izango da hauteskundeetako araudi guztia bete dadin zaintzea eta, betetzen ez denean, mahaiaren aurrean tokatzen den erreklamazioa idatziz aurkeztea, beronen kopia sinatu bat eskatuz konstantzia gera dadin.

3.1.4.- ENPRESARIOAREN ORDEZKARIA

Estatutuaren arabera (73.5. art.) botaziora eta kontaktetara joatea bakarrik izango dira enpresari-ordezkararen egitekoak. Enpresaria parte interesatu bezala hartzen da prozesalki,

horregatik honek ere egin ditzake bere erreklamazioak. Botua emateko eskubiderik ez dauka, noski.

1.4.- ERAKETAREN MOMENTUA ETA MODUA

Promotoreek seinalatutako egunean eratu da HAUTESKUNDE-MAHAIA. Egun hori izango da hauteskunde-prozesua hasteko data (LEko 67.1. eta RDNCEko 2.1. art.)

Eraketa egiteko modua akta bidez egingo da, zeina mahaiaren osakide guztiek sinatuko baitute (LEko 74.1. eta RDNCEko 5.2.art. eta Eredua).

1.5.- HAUTESKUNDE-MAHAIAREN FUNTZIOAK

- Botazioaren data jartzea.
- Hauteskunde-prozesu guztiaren garapena zaintzea.
- Hauteskunde-zentsua egitea.
- Hauteskunde-zentsuak argitaratzea, behin-behinekoa eta behin-betikoa.
- Ordezkarien kopurua finkatzea.
- Kandidaturak aurkezteko tope-eguna finkatzea.
- Aurkezten diren erreklamazioak konpontzea.
- Aurkezten diren kandidaturak onartzea.
- Kandidaturak aldarrikatzea.
- Beharrezko aktak jasotzea.
- Kontaketa-akta idaztea hiru egun natural baino lehenagoko epe baten barruan.
- Kontaketa-aktaren kopiak bidaltzea interbentore, enpresari eta hautatutako ordezkari guztiei.
- Botazioaren emaitzak argitaratzea.
- Kontaketaren akta aurkeztea Erregistroko Bulego Publikoan.

2.- BOTAZIO-DATA FINKATZEA

Botazio-data zein momentutan finkatu behar den ez da esaten. LEak (74.2. art.) esaten duen gauza bakarra da mahaia eratan den dataren eta botazio-dataren bitartean ez direla 10 egun natural baino gehiago pasatuko.

3.- ENPRESARIAK LAN-ZENTSUA HAUTESKUNDE-MAHAIARI BIDALTZEA

Enpresariak HAUTESKUNDE-MAHAIARI bidali beharko dio zentsu hori promotoreek hauteskunde-mahaia eratzeko finkatzen duten datan (74.2. art.).

4.- HAUTESKUNDE-ZENTSUA EGITEA MAHAIAREN ALDETIK

49 langile arteko enpresetan eragiketa hau oso erraza izaten da oso langile-kopuru handia ez delako hori, eta egun batean edo gutxiagoan egin daiteke, beraz, lan hori.

5.- HAUTESKUNDE-ZENTSUAREN ARGITARATZEA

LEak eta RDNCEak ez dute esaten hauteskunde-zentsuko zerrendak zenbat denboran egon behar duten jendaurrean jarrita.

Hala eta guztiz ere esan beharra dago, ezen:

Edozein kasutan, ezinbesteko baldintza dela hori argitaratzea.

6.- HAUTESKUNDE-ZENTSUAREN KONTRAKO ERREKLAMAZIOA

Hauteskunde-zentsuari egiten zaizkion erreklamazioak edozein interesatuk egin ditzake HAUTESKUNDE-MAHAIAREN aurrean, argitaratzen denetik hasi eta erakusketa publikorako epea bukatu ondorengo 24 orduak pasatzen diren arte (LEko 74.3. art.).

Idatziz egingo dira, eta HAUTESKUNDE-MAHAIKO Lehendakariak edo Idazkariak sinatu beharko ditu horien kopiak.

HAUTESKUNDE-MAHAIK konponduko ditu hauteskunde-zentsuaren kontra aurkeztutako erreklamazioak, gehienez ere 24 orduko epe baten barruan (RDNCEren 5.10. art.) eta hautesleen behin-betiko zerrenda argitaratu aurretik.

HAUTESKUNDE-MAHAIAREN ebazpenaren kontra egin daiteke inpu gnazio bat LEko 76. art.an araututako prozedura arbitrala jarraituz.

7.- HAUTESLE-ZERRENDA BEHIN-BETIKOAREN ARGITARATZEA ETA HAUTATU BEHARREKO ORDEZKARIEN KOPURUA ZEHAZTEA

Erreklamazioak konpondu ondoren argitaratuko da behin-betiko zerrenda, erreklamaziorik dagoenean, eta ondoren zehaztuko da hautatu beharreko ordezkarien kopurua.

8.- HAUTAGAIEN AURKEZPENA

Hautagaiak HAUTESKUNDE-MAHAIAREN aurrean aurkeztuko dira horrek ezarritako epearen barruan. Hautagaien aurkezpenak hertsiki jarraitu beharko ditu KANDIDATUREN sailean esandako guztiak. HAUTESKUNDE-MAHAIK, hautagaien behin-betiko aldarrikapena egiten ez den bitartean, eska dezake hautagaien berrespenean antzemandako akatsak zuzentzea; zuzenketa hori interesatuek berek egin beharko dute HAUTESKUNDE-MAHAIAREN aurrean (RDNCEko 7.1. art.).

9.- HAUTAGAIEN ALDARRIKAPENA

Hautagaien aldarrikapena HAUTESKUNDE-MAHAIK egingo du berak ezarritako epearen barruan.

10.- HAUTAGAI-ALDARRIKAPENAREN KONTRAKO ERREKLAMAZIOAK

Ez dago ezarritako eperik.

Behin erreklamazioak ebatzi ondoren, hautagaiak behin-betirako geratzen dira aldarrikatuta.

11.- HAUTESKUNDE-PROPAGANDA

Hautagaiak behin-betirako aldarrikatzen diren unetik aurrera, hautagaien sustatzaileek, hautagaien aurkezleek eta hautagaiak beraiek, egin ahal izango dute HAUTESKUNDE-PROPAGANDA botaziorako seinalatutako dataren aurreko eguneko zero ordurarte, lanaren prestazio normala aldatzen ez bada (RDNCE 7.4. art.).

12.- BOTAZIOA

Botazioaren inguruan dauden egintza eta inguruabar guztien artean, gehienak LE eta RDNCEan araututa aurkitzen diren arren, badaude beste batzuk arautu gabe daudenak eta funtsezkoak gertatzen direnak; horregatik, analogiaz, Hauteskunde-Erregimen Orokorreko Lege Organikoan (LOREG) erabakitakora jo behar da honelakoetan.

1.- Botazioa HAUTESKUNDE-MAHAIK ezarritako egunean egingo da, lan-egunaren barruan, eta kontuan hartu beharko da turnotan edo lanaldi berezietan lan egiten dutenen egoera ere (LEren 75.1 art. eta RDNCEko 5.4. art.).

2.- Lan-zentroan edo lantokian egingo da botazioa (LE 75.1. art.).

3.- KOLEGIKO MAHAIAREN aurrean fisikoki egonez ala postaz bidaliz egikaritu daiteke botu-eskubidea. (Ikus POSTA BIDEZKO BOTUARI BURUZKO ERANSKINA). Bi kasu horietako edozeinetan, hautesleak hauteskunde-zentsuan egon beharko du sartuta botua eman ahal izateko. Lehenengo kasuan, gainera, bere identitatea justifikatu beharko du N.A.N., gida-karneta edo pasaporteak erakutsiz (RDNCEko 5.6. art. eta LOREGeko 85.1. art.).

4.- Botua izango da librea, sekretua, pertsonala eta zuzenekoa (LEko 72.5. art.).

5.- BOTU-TXARTELAK

Botua emateko txartelak denak berdinak izango dira tamainaz, kolorez, inpresioz eta paper-kalitatez. (LEko 75.2. art. eta RDNCEko 5.6. art.).

6.- Ez da ezer arautzen botu-txartelak zeinekakari behar dituen esateko; beraz eta printzipioz hautagaia edo Sindikatua izango da txartelak egiteko eta banatzeko ardura izango duena.

Botu-txartelen eta, oro har, hauteskundeetako material guztiaren kostuari dagokionez, enpresaria egingo da horren kargu (LEko 75.1. art.).

7.- Botu-txartelaren eredu bakar bat izango da, eta bertan hautagai guztiak azalduko dira, ordena alfabetikoan eta aurkeztu dituen Sindikatu edo langile-taldea zein izan den azalduz (RDNCEko 8.1 art.).

8.- SOBREAK

Botu-txartela sobre baten barruan sartuko da. Sobre guztiak berdinak izango dira (RDNCEko 5.6. art.).

9.- Hauteslearen identitatea eta hauteskunde-zerrendan sartua dagoela egiaztatu ondoren, Mahaiko Lehendakariak urman sartuko du sobrea (RDNCEko 5.6. art.).

10.- Hautesle bakoitzak, betetzeko dagoen lanpostu adina kandidatu aukera ditzake bere botua emateko (LEko 70. art.). LE eta RDNCEk eragiketa hori egiteko moduari buruz ezer esaten ez duten arren, Senadoreen hauteskundeetarako Hauteskunde-Erregimen Orokorrekin analogia eginez ikusten da botu-txartelean seinalatuz egin beharko dela, gurutze bat jarriz botatu nahi den hautagaiari edo hautagaiei dagokien laukitxoan barruan.

11.- Indar handiagoko arrazoiez bakarrik eseki ahal izango da botazioa edota bere garapena eten, Mahaiaren erantzukizunaren pean (RDNCEko 5.5. art.).

Botazioa eseki edo eteteo arrazoi bezala kontuan hartu beharko da, berebat, botu-txartelik ez egotea. (LOREGeko 84.4. art.).

12.- URNAK

MAHAIK behar bezala zigilatutako urna bat izan beharko du botazioaren hasieratik.

13.- Aurretik HAUTESKUNDE-MAHAIK bere egunean ezarritako orduan bukatuko da botazioa. Ondoren postaz emandako botuak sartuko dira urnetan. Segidan, Mahaiko kideek eta Interbentoreek emango dute beren botua.

14.- Gertatzen den edozein gorabehera edo erreklamazio botazio-aktan jasoko da.

13. BOTU-KONTAKETA

Batzordeen kasuan bezala, botazioa bukatu ondoren, Mahaiak publikoki egingo du botuen kontaketa, Lehendakariak ahots ozenez irakurritz botu-txartel guztiak (LEko 75.3. art.). Emaidza akta batean jasotzen da, KONTAKETA-AKTA ereduaren arabera. Pertsonal-ordezkarien hauteskundearen kasuan,

13.1.- BALIOZKO BOTU izango dira:

a) BOTU KONPLIMENTATUAK (hautagai baten edo batzuen alde behar bezala emandakoak, muga bezala jarriz bete beharreko lanpostu-kopurua adinakoak izatea).

b) ZURIAN EMANDAKO BOTUAK. (Batere botu-txartelik gabe dauden sobreak).

2.- BOTU NULUAK izango dira:

a) Ezarritako ereduko botu-txartel edo sobreetan emandakoak.

b) Botu-txartelean sobrerik gabe emandakoak.

c) Bete beharrekoak baino postu gehiago markatuta dauzkaten txartelak edo beste eraren bateko edozein eraldaketa izan dutenak.

d) Nolabaiteko eraldaketaren bat izan duten sobreetan emandakoak.

14.- EMAITZEN ESLEIPENA

Emaidzen esleipena kontaketa egin eta berehala egingo da. EMAITZEN ESLEIPENA EGITEKO ARAUAK.

1.- Botu-kopururik handiena lortzen duten hautagaiak geratuko dira aukeratuta (LE 70. or.).

2.- Berdinketa gertatuz gero, enpresan antzintasun gehiago daukan hautagaia geratuko da aukeratuta (LE 70. or.).

Adibidez:

48 langile dituen enpresa; beraz, pertsonalaren 3 ordezkarri aukeratu beharko dira, eta eman dezagun 6 hautagai aurkeztu direla eta honako emaitzak atera direla:

Hautagaia	Sindikatu	Botu-kop.
A	UGT	10
B	IND.	7
C	LAB	20
D	LAB	25
E	UGT	12
F	LAB	11

Aukeratuta geratuko dira, beraz, honako hautagai hauek:

Biharko egunean, dimisioak eta bestelako arrazoiak direla medio, ordezkapenak egin behar izatea gertatuko balitz, lehenengo ordezkoa F izango litzateke (LAB).

15.- KONTAKETA-AKTA ETA EMAITZEN ESLEIPENA EGITEKO MODUA

Kontaketa eta emaitzen esleipena egin ondoren, Mahaiak horri buruzko akta bat jaso beharko du eranskineko Ereduaren arabera (RDNCEko 5.5. art.).

Akta horretan jaso beharko dira erreklamazio eta gorabehera guztiak.

Hauteskunde-Mahaiko Lehendakariak kontaketa-aktaren kopia bana emango die enpresariari eta kandidatura bakoitzeko interbentoreei, eta baita hautatutako ordezkari guztiei ere.

Botazioaren emaitzak iragarki-taulan jarriko dira (LEko 75.5. art.), kontaketa bukatu ondorengo 24 orduren barruan (1311/86 E.D.ko 10. art.).

16.- AKTAK ADMINISTRAZIOARI BIDALTZEA

Aktaren originala eta botu nuluen edo interbentoreek inpugnatutakoen txartelak, mahaiaren eraketa-aktarekin batera, bertako Lurraldeko Lan eta Gizarte-Segurantzako Departamentuaren Delegazioan aurkeztu beharko dira hauteskundeak egin eta ondorengo 10 egun naturalen epean; Mahaiko Lehendakariak aurkeztu beharko ditu, baina Mahaiko beste kideren baten gain ere delega dezake ardura hori. EHKAtik kanpora epe hori hiru eguneko izango da.

Bulego Publikoak, hurrengo lanegunaren barruan akta horren kopia bat argitaratu beharko du iragarki-tauletan, hala eskatzen duten sindikatuei ere kopia bana emanaz, eta enpresari berri emango dio bere bulego horretan delako akta hori aurkeztu dela esanez, inpugnatzeko epea zein egunetan bukatzen den seinalatuz, eta txartelen gordailua egingo du inpugnazio-epe horiek bukatzen diren arte.

Argitaratzen den egunetik hamar lanegun pasa direnean hauteskunde-aktak erregistratuko ditu ala ez.

Aktak Komisionan inpugnatzeko epea zazpi egun naturalekoa izango da Lurralde-batzordeak berak aztertzen dituen egunetik kontatzen hasita. (Puntu hau EHKArako bakarrik ematen da).

Bulego Publikoak akta baten erregistroa ezetsi dezake baldin eta akta horiek:

- ez daudenean eredu ofizial normalizatuan eginda,
- erregistroko Bulego Publikoari hauteskunde-promozioaren berririk eman ez zaionean,
- Hauteskunde-Mahaiko lehendakariaren sinadura falta denean,
- aktetan daturen bat falta edo irakurri ezin delako, hauteskunde-konputurik ezin denean egin.

Hautetako suposamenduren bat gertatzen denean, batzordeak, hurrengo lanegunaren barruan, Hauteskunde-Mahaiko lehendakariari errekerimendua egingo dio hamar laneguneko epe baten

barruan egin dezan tokatzen den oker horren konponketa. Errekerimendu hori ordezkaritza lortu duten sindikatuei eta gainerako kandidatei ere jakinaraziko zaie.

Okerra konpondu ondoren, Bulego Publikoak hauteskunde-aktaren erregistroa egingo du.

Epea bukatu eta okerra konpondu ez, ala behar bezala egin ez denean, Bulegoak erregistroa ezetsi egin beharko du hamar laneguneko epe baten barruan, ordezkaritzaren bat lortu duten sindikatuei eta Mahaiaren Lehendakariari horren berri jakinaraziz.

Erregistroaren ezespren horren arrazoia Bulego Publikoari aurreabisurik ez ematea izan denean, ezingo da egin okerraren konponketa-errekerimendurik.

Erregistroa ukatzeko ebazpen hori inpugnatu ahal izango da ordena jurisdikzional sozialaren aurrean.

HAUTESKUNDE-PROZESU BEREZIAK DITUZTEN SEKTOREAK

1.- MARINA MERKANTEA

Flota eratuko da mugape edo hauteskunde-unitate bakar bezala, kontuan hartu gabe untzien kopurua eta beren matrikula-erregistroa, enpresak 50 langile edo gehiagoko itsasuntziak dauzkanean salbu, kasu horretan langileok aukeratuko baitute beren Batzordea, gainerako itsasuntzi guztiekin batera hauteskunde-mugape bakar bat eratuz (1311/86 E.D.ko 17. art.).

Langilegoaren ordezkariak

Beste enpresa-motetarako seinalatutako prozedura bera aplikatuko da, ondorengo salbuespen hauek kontuan hartuta (1311/86 E.D.ko 18. art.).

— Hauteskunde-Mahai Zentral bat eratuko da Enpresaren helbidean, lehendakari eta bi bokalekin osatuta; hauek LEko 73. art.an ezarritakoaren arabera aukeratuko dira.

— Itsasoan dabiltzan langileen botazioa errazteko asmoarekin, itsasuntzi bakoitzean Mahai lagungarri bana eratuko da, Mahai Zentralaren irizpide berdinekin osatuta.

— Mahai Lagungarriek kontaktetaren akta jaso eta, inpugnatutako txartelekin batera, Mahai Zentralari bidaliko diote horren berri prozedurarik bizkorrena erabiliz.

— Mahai Zentralak, Mahai Laguntzaileen akta guztiak jaso ondoren, akta global bat egingo du hurrengo lanegunaren barruan.

2.- ARRANTZUNTZIEN FLOTA

Hiru flota-mota bereizten dira:

1.- ALTURAKO ETA ALTURA HANDIKO FLOTA (itsasuntzi izoztaileak).

Marina Merkanterako aurikusitako hauteskunde-prozeduraren arabera eraenduko da hau.

2.- ALTURA ERTAINEKO FLOTA (gutxienez 21 eguneko barku-denbora izaten duena batezbeste)

3.- BAJURAKO FLOTA (1etik 7ra bitarteko barku-egunak izaten dituena).

Altura Ertaineko eta Bajurako flota ondorengo hauteskunde-prozedura honen arabera eraenduko dira:

Langilegoaren ordezkariak

Enpresa berean lan egiten duten langileentzako Pertsonal-Ordezkarrien hauteskundeak portu basean egingo dira (1311/86 E.D.ko 21. art.).

— Beren zerbitzuak portuan dauden itsasuntzietako iharduera lagungarrietan egiten dituzten langileak, kopuruz gutxi izateagatik beren ordezkariak aukeratzeko gai ez direnean (6 langile baino gutxiago), barkuetako langileekin batera parte hartuko dute hauteskunde-prozesuan.

- Enpresa bakoitzeko Hauteskunde-Mahaia honela egongo da osatua: Lehendakari bat, antzinasun gehieneko langilea izango dena, eta bi bokal, adin gehieneko eta gutxieneko hautesleak hain zuzen ere, eta bigarrenengo honek egingo ditu idazkaritzako lanak.

- Botazio-epeak 30 egun naturalekoa izango da.

- Hauteskunde-mahaia behar adina aldiz bilduko da, epealdi horretan egiten diren botazioak kontrolatzeko behar den guztitan.

- Mahaiak botaziorako egutegi batzuk seinalatuko ditu malgutasun-irizpideak erabiliz, eta kontuan izanik batzuetan zailtasunak izaten direla portura nahi denean iristeko.

- Botazio bakoitzetik, Mahaiak kontaketa-akta partzial bat jasoko du, eta flotako untzi guztien botazioa bukatzen denean akta orokor bat jasoko du.

POSTA BIDEZKO BOTUA (RDNCEko 9.art.)

Posta bidezko botuaren eskubidea egikaritzeko, honako urrats hauek eman beharko dira:

1.- Hautesleak HAUTESKUNDE-MAHAIARI (EDO KOLEGIO-MAHAIARI) jakinarazi behar dio botua postaz emateko asmoa daukala.

Jakinerazpen hori egiteko epea, promozioa egin ondorengo egunean hasi eta botazioa egiteko data baino 5 egun (lanegun) lehenago arte izaten da.

MODUA:

— Interesatuak hauteskunde-mahaiaren aurrean pertsonalki aurkeztutako idatzi zertifikatu baten bidez.

— Posta zertifikatuz, eta kasu honetan, hautesleak Posta-Bulegoan aurkeztu beharko du idazkia sobre batean, itxi gabe. Idazki hori Postako funtzionarioak datatu eta zigilatu beharko dio, bidaltzen duenaren identitatea egiaztatu ondoren, eta gero sobrean sartu eta zertifikatu egin beharko du.

— Interesatua ez den beste pertsona batek idazki bat aurkeztuz Hauteskunde-Mahaiaren aurrean, ekintza horretarako AHALMEN NOTARIAL baten bidez kreditatua dagoela azalduz.

2.- Jakinerazpen horren berri jasotzerakoan, Mahaiak egiaztatu egin beharko du interesatu horrek hautesle-baldintza betetzen duela, eta hautesleen zerrendan apuntatu beharko du botua postaz emateko eskaera hori.

3.- Mahaiak sobrea eta hauteskunde-txartelak bidaliko dizkio interesatuari. Hala ere LABek bere aldetik enpresa bakoitzean bidal diezazkizkieke beren kandidateretako sobreak eta txartelak botua postaz ematea pentsatzen duten guztiei.

4.- Hautesleak txartela sartu BOTAZIO-SOBREA, eta sobre hori itxi egin behar du. Gero, berriz, BOTAZIO-SOBREA N.A.N.ren FOTOKOPIAREKIN batera, neurri handiagoko BESTE SOBREA baten barruan sartzen dira, eta hauteskunde-mahaiari bidaltzen zaio POSTA ZERTIFIKATU bidez.

5.- Mahaiari jasotako sobreak idazkariak gordeko ditu botazio guztia bukatu arte.

6.- Kontaketa egin aurretik, SOBREA zertifikatuak (KANPOKO SOBREA) Lehendakariari entregatu behar zaizkio, eta honek ireki egingo ditu, hauteslea identifikatuz N.A.N.ren FOTOKOPIAREN bitartez, eta hautesleen zerrendan egiaztatuz botua postaz emateko asmo hori jakinarazita zegoela lehenetik.

Lehendakariak urman sartuko du BOTAZIO-SOBREA (ireki gabe, botua sekretua da-eta).

7.- Aurreko baldintza horiek betetzen ez dituzten posta bidezko botuak botu nuluzat hartu beharko dituzte LABeko interbentoreek.

8.- Botazioa bukatu eta gero jasotzen diren posta bidezko botuak ez dira kontatuko, eta erre egin beharko dira.

9.- Posta bidezko botua ematea aukeratu duen hauteslea hauteskunde-egunean bertan

egotea tokatu eta botua pertsonalki ematea erabakiko balu, Mahaiari jakinaraziko dio horren berri; Mahaiak, botu hori eman ondoren, postaz bidalitako beste botua entregatu beharko dio, sobrea iritsita baldin badago, eta iritsi gabe balego, berriz, etortzen denean erre egin beharko du.

HAUTESKUNDE-PROZESUAN EGINDAKO ERREKLAMAZIOAK

1) Legezko interesa duten guztiek inpugnatu ahal izango dituzte hauteskundeak, Mahaiak hartzen dituen erabakiak eta baita hauteskunde-prozesuaren bitartean Mahai horrek egiten duen beste edozein iharduketa ere, horretarako arrazoiak honako hauetan bilatuz:

a) hauteskunde-prozesuaren garantiak afektatu eta emaitzak eraldatu ditzaketen akats larriak daudela;

b) aukeratutako hautagaiek ez dutela gaitasunik edo legitimitaterik;

c) desadostasuna dagoela aktaren eta hauteskunde-prozesuaren garapenaren artean;

d) korrelazio-falta dagoela hauteskunde-aktan azaltzen diren langileen kopuruaren eta aukeratutako ordezkarien kopuruaren artean. Hauteskunde-Mahaiaren egintzen ipugnazioak eskatzen du aurretik erreklamazioa egin dela egintza egin ondorengo hurrengo lanegunaren barruan, eta mahaiak hurrengo astegunaren barruan erantzun beharko dio horri, Lege honen 74.2. artikulua azkeneko parrafoan seinalatzen direnetan salbu.

2) Hateskunde-gaietako ipugnazioak, inskripzio-ukapenetakoak salbu, ondorengo arbitraje honen arabera tramitatu beharko dira:

a) Laneko agintearen menean dagoen bulego publikoari, hauteskundeak sustatu zuenari eta, kasua denean, ipugnazio-gai diren hauteskunde horietara hautagaiak aurkeztu dituztenei zuzendutako idazki bat eginez hasiko da. Idazki horretan inpugnatu nahi diren egintzak azalduko dira eta honako epe honen barruan aurkeztu beharko da:

2.a.1) 3 astegunen barruan, egintzak gertatu ziren dataren hurrengo egunetik kontatzen hasita.

2.a.2) 3 astegunen barruan, erreklamazioa ebatzi zen dataren hurrengo egunetik kontatzen hasita, hau da, hauteskunde-mahaiaren egintza bat inpugnatzen deneko suposamenduan, erreklamazio hori egitea obligaziozkoa dela gertatzen denean.

2.a.3) Inpugnazio hori hautagairik aurkeztu ez duen Sindikatu batek egingo balu, 3 astegun, egintza inpugnagarria ezagutzen denetik kontatuta.

2.a.4) Botazioaren eguneko edo geroagoko egintzak inpugnatzen baldin badira, 10 lanegun, aktak bulego publikoan sartzten direnetik kontatzen hasita.

Lan-agintearen menean dagoen bulego publikoak idazki horren bidalketa egingo dio arbitroari, hartu ondorengo lanegunean, hauteskunde-espediente administratiboaren kopia bat ere bidaliz. Hauteskunde-aktak erregistroan sartzeko aurkeztuta baleude, eten egingo dira tramitazioak.

Hurrengo hogeita lau orduren barruan, arbitruak beregana deituko ditu alderdi interesatuak, eta ondorengo hiru astegunen barruan egin beharko da deialdi hori. Alderdi horiek, izendatutako arbitro horren aurrera etorri baino lehen, artikulua honen hirugarren zenbakian ezarritakoaren arabera, adostasun batera etorri eta beste arbitro desberdin bat izendatuko balute, lan-agintearen menean dagoen bulego publikoari jakinarazi beharko diote horren berri, honek arbitro berri

horri bidal diezaion hauteskunde-espeditante administratiboa, eta berarekin jarraituko da prozedura guztia.

Arbitroak, bere aurrera aurkezten direnetik hurrengo hiru lanegunen barruan, bere baitan lantegian pertsonalki azaltzea eta enpresariari eta administrazio publikoei behar den laguntza sar dezaketen legearen arabera proba egokien praktika egin ondoren, laudoa emango du.

Prozedura arbitrala eta, kasua denean, ondorengo inpugnazio judiziala bukatzen ez den bitartean, geldi geratuko da beste edozein prozedura arbitral berriren tramitazioa. Arbitrajearen planteamenduak eten egingo ditu preskripzio-epeak.

Laudoa idatzia eta arrazoitua izango da, eta zuzenbidearen arabera ebazpen bat emango du hauteskunde-prozesuaren inpugnazioari buruz eta, kasua denean, baita aktaren erregistroari buruz ere, eta interesatuei eta bulego publikoari emango zaie horren berri.


Botazioa inpugnatu izan balitz, bulegoak aktaren erregistroa egin ala ukatu egin beharko du, laudoak zer esaten duen kontu.

Laudoa inpugnatu daiteke ordena jurisdikzional sozialean.

EHKAREN markoan eta batzordetan sortutako desadostasunak konpontzeko asmoarekin, bertan presentziaren bat zuten Konfederazio Sindikalek beren artean ados jarri eta arbitro bana aukeratu beharko dute Lurralde Historiko bakoitzetik eta Komunitate Autonomo osorako beste arbitro bat, bakoitza berari dagokion eremuan sortzen diren gatazketan eskuduna izango delarik.

— 1994ko uztailaren 15 baino lehen sindikatuak ez baldin badira arbitroak izendatzeko ados jartzen, Lan eta Gizarte-Segurantzako Sailak aukeratuko ditu.

Behar sinatzen duten konfederazio sindikalek artikuluko honetan araututako arbitraje-prozedura onartzeko konpromisua hartzen dute bere gain, Segimendu eta Kontrolako batzordeetan sortzen diren desadostasun guztiak konpontzeko; arbitroen erabakiak apelaezinak izango dira beti eta, beraz, Konfederazio sinatzaileak behartzen dira beste ondorengo ebazpide batzuetara ez jotzera.





Paper Birziklatuan inprimatua.
Dep. Legal: BI- 1783-94

GESTINGRAF
Cº. de Ibarsusi, 3.
48004 Bilbao.



ARGITARAPENAK

DONOSTIA. 20011.

Zorroaga pasealekua 7, entreplanta

Tlfnoa: (943) 46 47 33